

Japoniera.Hiztegia.Erabilera



www.kotobai.com/eu/

GoiHata SL Araba Etorbidea. 3-2º Eskatu Eraikina
20500 Arrasate Gipuzkoa EUSKADI
Tel: 943.792575

Hiztegiaren Erabilera eta potentziala

[Japoniera Euskara Hiztegia](#) deitu diogu baina askoz gehiago da, Hau, software librean sortutako elkarlanerako plataforma indartsu bat da. Web aplikazio honek bi ate ditu. Aurreko atea eta Atzeko atea.

Aurreko atea – Aurreko atetik sartzeko ez duzu inolako pasahitzik behar. Gozatu!! gure hiztegia

Hitzak bilatzeko, **Hizkuntza** aukeratu behar duzu
Ondoren aukeratu bilaketa era: **Hasiera, Bukaera, Du, Zehatza**

- a) Hasiera – Zure bilaketa hitzaren hasierarekin bat badator agertuko zaizu (balio lehenetsia da).
- b) Bukaera – Zure bilaketa hitzaren bukaerarekin bat badator agertuko zaizu.
- d) Du – Zure bilaketak hitzaren eduki hori izaten badu agertuko zaizu.
- e) Zehatza – Zure bilaketa eta hitza bera guztiz berdinak badira agertuko zaizu.

Japonieratik Euskarara bilatzen baduzu: Hiru aukera dituzu

- Kanji (Ideograma) → 家
- Kana (Hiragana, Japoniako alfabeto silabikoa) → いえ
- Romaji (alfabeto romanikoan (gurean) nola ahoskatzen den → ie

Bilaketa adibide bat

Hizkuntza = Euskara	Bilaketa mota = Zehatza	Hitza = etxe
<input checked="" type="radio"/> ハスク語/Euskara	<input checked="" type="radio"/> 完全一致/Zehatza	etxe <input type="text"/> <input type="button" value="検索/Bilatu"/>

Emaitza (3) (japonieraz gutxienez hiru eratan esan daiteke "etxe")

etxe 名/Izena		
Kanji 家庭	Hiragana かてい	Romaji katei
etxe 名/Izena		
Kanji 住居	Hiragana じゅうきょ	Romaji juukyo
etxe 名/Izena		
Kanji 家	Hiragana いえ	Romaji ie

- Oharrak: Euskara infinitibo eran idatzita dago;
Adibidez Ikut(u), Etor(ri), satit(u), ikus(i), afal(du) eta abar

Atzeko atea – Atzeko atetik sartuta, editore bihurtzen zara, Zeu zara protagonista !!!!! editoreak sortzen ditu “sarrerak” (hitzak), eta bera da hitz hoiien jabea. Eta jabea denez hitzak gehitu, kendu edo aldatzen ditu.

Editore bila gabiltza!!! Onurak guztiontzat eta norberentzat dira.

Jarri zaitex harremanetan GoiHata-rekin editore bihurtzeko. Pasahitza emango dizuegu.

Editoreak honelako leiho bat dauka oso errez hitzak gehitzen joateko, Kanji-a sartuz gero, programa bera arduratzen da Hiragana eta Romaji sartze lan horretaz. Bertan hitzaren ahoskera (otsa) eta irudiak ere sartu daitezke.



Editore izateko beharreko baldintzak

- 1) Japoniera eta Euskara ezagutu
- 2) Internet konexioa
- 3) Ordenagailu arrunt bat edozein nabegatzailerekin (Explorer, Firefox, edo beste edozein)
- 4) Editore bihurtzeko gogoia!!! Besterik ez

Wikipedia filosofia duen Japoniera-Euskara hiztegia egiteko plataforma sortu dugu. 20000 hitz ditu, hitz kopurua gehitu nahi dugu.